

Galdera

Ikasle batek «letra odolarekin sartzen da» erdarazko esapidearen kalkoa egin du idazlan batean. Nola esan dezake hori modu jatorrean?

Erantzuna

Guk esaera horren hiru kideko aurkitu ditugu [Gotzon Garateren Atsotitzak](#) lanean:

→ La letra con sangre entra. [2729](#)

Euskaraz

- Jakintsu da astua, makilla du maixua. [7820](#)
- Makillasaldarekin eroak ikasten. [9334](#)
- Ikasiko dik gogorrak, dantzatzen baduk zigorra. [14053](#)

1/ Gotzon Garatek idazkera horrekin jaso dituen esamoldeak honela idatziko genituzke euskara batuan:

- Jakintsu da astoa, makila du maisua.
- Makila-saldarekin eroak ikasten.
- Ikasiko dik gogorrak, dantzatzen baduk zigorra.

Azkena, zukako moldean eman ez gero:

- Ikasiko du gogorrak, dantzatzen baduzu zigorra

[zigor](#):

5. iz. Zigortzeko erabiltzen den makila edo tresna

7. iz. Abar mehe, luze eta zuzena

2/ Gehiago jakiteko:

[Gotzon Garate - Atsotitzak - Online Kontsulta zerbitzua \(ametza.com\)](#)

[CVC. Refranero Multilingüe. Ficha: La letra con sangre entra. \(cervantes.es\)](#)

[CVC. Refranero Multilingüe. Ficha: Jakintsu da astua, makilla du maisua. \(cervantes.es\)](#)